

### Euskarari buruzko ahalduntzea bideratzeko saioak (Tailerrak - Saio bideratuak - Gogoeta parte hartzaileak)

#### Zer da Erabil kolektiboa?

ERABIL kolektiboa, 2017an BAM! dinamikaren biharamunean sortutako eta euskalgintzako profesionalen / herritarren osatu elkarte irekia da. Diziplinartekoa eta irabazi-asmorik gabekoa, **euskararen biziberritzearen** arloan ekarpen konkretu eta landua egitea du xede, **ikuspegi soziolinguistikoa** partekatuz:

- ▶ interbentzio zuzenen bitartez (tailer, gogoeta parte hartzaile, formakuntza...),
- ▶ material didaktikoa libreki eskuragarri emanez (bideo, infografia, kronika...).

Hartarako, Euskal Herrian eta mundu zabalean den jakintza bildu, landu eta jendarteratzen dugu.

#### Zer egin dugu orain arte?

Bi urtez, ERABIL kolektiboak **8 tailer berri** sortu eta hedatu ditu gai desberdinen inguruan: familia, komunikazioa, administrazioa, haurtzaindegiak, elkartegintza, ikas-prozesuak... Hainbat eragilerekin lan egin du: Aek, Uda Leku, Seaska, Herri elkargoa, Miarritze eta Hendaiko herriko etxeak, Euskal Konfederazioa, Topagunea, Euskaraldia, Garabide...

2020an, 8 kide aktibo zenbatzen ditu eta 2021erako helburu batzuk finkatu dizkio bere buruari, besteak beste **kide kopurua emendatzea** eta **sortu dituen tailerrak gehiago biziaraztea**. Testuinguru horretan kokatzen da esku artean duzun dokumentua.

#### Zein da gure proposamena?

Ipar Euskal Herrian bizitzen ari giren euskararen biziberritze prozesuak errealitate berri bat agerian eman du eta horrek behar berriak sortu ditu. Tokian tokiko egiturek (elkarteek, kolektiboek, instituzioek, komertzioek, enpresek, kirol elkarteek...) ez dakite beti nola erantzun **hizkuntzaren inguruko erronka** zehatzei:

- Nola sortu afitxa elebiduna?
- Zein hizkuntzatan egin nire biltzar nagusia?
- Nola integratu kide ez euskaldunak?
- Zer toki eman euskarari gure ekitaldietan?
- Nola elika dezaket konkretuki euskararen biziberritze prozesua?
- Zergatik euskaldun askok ez dute gurekin euskaraz egiten?
- Nola hobetu nire euskarazko eskaintza?
- ...

Galdera errex hauei erantzun konkretuak ematea da Erabil kolektiboaren xedea.



## Zer dugu eskaintzeko?

Tailer desberdinak eskaintzen ahal ditugu 2021/2022 tartean. Egituren beharrak eta Erabil kolektiboaren gogoak hobeki identifikatzeko, lan saio baten antolatzea da bide zuzenena. Zortzi proposamen hauek aparte, beste gaiak ere lantzen ahal dira.

### 1) Euskara gure bestetan.

*Antolatzen ditugun ekitaldietan euskara erdigunean kokatzeko moldeak*

Euskararen arnaguneak | Bestaren esperimendazio gaitasuna | Esperientziak | ...

### 2) Euskara familian.

*Guraso erdaldun zein euskaldunekin, haurra euskaraz loratzeko bideak*

Motibazioa | Eredua | Tresnak | Ahozkoitasuna | ...

### 3) Hizkuntza ohiturak aldatuz.

*Herritarren eta euskalduntzen bidean direnen ahozko erabilera garatzeko deklidikak*

Aktibazioa | Ahobizi, Belarriprest | Ulermena | Aserbitateak | Lehen hitzak | ...

### 4) Euskaraz (ere) hobeki komunikatu.

*Komunikazio eleanitzaren oinarriko printzipioak*

Afitxak | Webgune eta Sare sozialak | Emailak | Ustezko simetria | Hierarkia | ...

### 5) Hizkuntzen eta hiztunen kohabitazioa nire elkartean.

*Bizikidetzak antolatzeako oinarriko tailerra*

Koadroa | Ulermena | Ahozko eta idatzizko komunikazioa | ...

### 6) Hizkuntzen kudeaketa eraginkorra bilkuretan.

*Denen arteko elkar ulertzea, bakoitzaren hizkuntz hautuak eta bilkura eredu berriak*

Bilkuren logika | Interakzio motak | Aukerak & Beharrak | Zaindu beharrekoak | ...

### 7) L'euskara entre nos mains

*Erdaldunak euskarara hurbiltzeko eta sentsibilizatzeko saioa*

Hizkuntza aniztasuna | Arnagune eta babesguneak | Erdaldunen ekarpenak | ...

### 8) Euskara haurtzaindegietan

*Lan ingurune elebidunetan oztipoak gainditzeko palankak*

Hizkuntza kohabitazioa | Jarrera inklusibo eta baztertzailak | Kapazitateak | ...

## Nola lan egiten dugu?

Galdetzailearekin bildu ondoan, bere beharrak biltzen dituen 'Transmisio fitxa' osatzen dugu tailerra diseinatu aitzin, igurikatutako ondorioei erantzunen diegula segur izateko.

Galderaren arabera 'Aurrekontua' proposatzen dugu. Galdetzailearen tipologia eta tailer kopuruaren arabera egokitzen gira. Ideia bat ukateko: tailer baten sortzea 400€-800€ artean kokatzen da eta animazioa 250€ inguru. (Erabilkide guztiak bolondresak dira; tailerren irabaziak materiala sortzeko eta egitura biziarazteko erabilia dira).

Tailerra animatzeko 2 pertsona heldu gira. 6-16 parte hartzaile artean biltzen dira. Parte hartzaileak tailerretik ateratzen dira paperezko euskarri konkretuekin, ez dadin teorikoa izan baina praktikoa (esku-liburu, infografia, aholku zerrenda, ...).